



Mutrikuko Udala



MUTRIKUKO MERKATARITZA TXIKIA BULTZATZEKO GABONETAKO KANPAINA 2020

PARTE HARTZEKO OINARRIAK

1.- JUSTIFIKAZIOA ETA XEDEA

Mutrikuko Udaleko garapen sailaren lan ildoen barruan, herriko merkataritza txikia sustatu eta bultzatzeko beharra ezarrita dago. Horregatik antolatu du Udalak **2020ko Gabonetako Kanpaina**.

Kanpainak sei aste iraungo du, eta bertan, atxikitako saltokietan gutxienez 10 euroko erosketa egitean, merkatariek txartel batzuk banatuko dituzte **MUTRIKUKO LOTERIA**n parte hartzeko.

Kanpaina honen bidez, Mutrikuko eta inguruko herrietako biztanleek herrian dagoen merkataritza-eskaintza erabil dezaten lortu nahi da, bertako ezagutza sustatuz eta tokiko ekonomia bultzatuz.

Kanpaina hori aurrera eramateko, establezimenduen eta herritarren parte-hartzea arautzen duten oinarri batzuk ezarri dira.

2.- ERAKUNDE ANTOLATZAILEA ETA LANKIDETZAK

"2020ko Gabonetako Kanpainaren" erakunde antolatzailea Mutrikuko Udala izango da, Ekonomiaren Garapen sailaren bitartez.

Udalak, sektorean duen eraginagatik, BERTAN merkataritza elkarteak izango du erreferentzia bezala.

3.- PARTE HARTZEN DUTEN ESTABLEZIMENDUAK

2020ko Gabonetako Kanpainaren edizio honetan, **merkataritza, turismo eta zerbitzu-establezimenduek parte hartu ahal izango dute**, baldin eta beren jarduera jendearentzat prestatutako lokal batean egiten badute, aldezturik ezarritako ordutegiaren barruan eta sarrera mugagabea badute, 10 langile edo gutxiago badute, Mutrikuko udalerrian badaude, erakuslehoa edo mostradorea badute eta dagozkien lizentziak badituzte.

4.- KANPAINAREN IRUDIA

Kanpainari atxikitako saltokiak kanpainaren kartela erakutsiko du erakuslehoan (posible ez bada, erakusmahaiko leku ikusgarri batean), bai eta horrekin lotutako beste edozein material ere.



Mutrikuko Udala



5.- KANPAINAREN DATAK

2020ko gabonetako kanpaina **2020ko abenduaren 1ean hasi eta 2021ko urtarrilaren 6an amaituko da.**

Sarien zozketa 2021ko urtarrilaren 8an egingo da, ostiralean.

6.- IZENA EMATEKO EPEA ETA LEKUA

Establezimendu gisa 2020ko gabonetako kanpainan parte hartzeko, eranskineko inskripzio-eskabidearen inprimakia bete eta sinatu beharko da.

Edizio honetan **izena emateko epea 2020ko azaroaren 21ean** amaituko da, **Mutrikuko Turismo Bulegoan** (Txurruka plaza, z/g), jendaurreko ordutegian, 10:00etatik 14:00etara.

Informazio gehiago:

Kontaktu elektronikoa: koordinatzailea.mutriku@gmail.com

Telefono bidezko kontaktua: 943 60 33 78

7.- BETEKIZUNAK: ESTABLEZIMENDUETAN PARTE HARTZEA

2020ko gabonetako kanpainan parte hartzeak ez dakar inolako kostu ekonomikorik, baina bai konpromezu batzuk:

- Kanpainari atxikitako saltokiak kanpainaren kartela edo irudia erakutsiko du erakusleihoan (posible ez bada, mostradoreko leku ikusgarri batean), bai eta horrekin lotutako beste edozein material ere, kanpaina egiten den bitartean.
- Mutrikuko Udalarekin harremanetan egotea, posta elektronikoz eta inskripzio honetan emandako whatsapp zenbakiaren bidez. Inskripzio-orria aurkezterakoan, saltokiak onartu egiten du udalak eman dituen datuak erabiltzea kanpainaren gaineko komunikazioa gauzatzeko.
- Zozketarako boletoak gutxienez 10 euroko gastua egiten duten bezeroen artean banatzea. Erosketako TIKETA gorde beharko da gastua ziurtatzeko, beraz, establezimenduak boletoa erosketa tiketari gratutuko dio.
- Banatu ez diren boletoak Turismo Bulegoan itzultzea: kanpainaren data amaitu ondoren, urtarrilak 7rako.
- Kontsumitzaileei kanpainaren berri ematea eta kanpainan parte hartu duten establezimenduen zerrenda ezagutzea.
- Mutrikuko Udaleko Garapen Sailak eskatzen duen edozein informazio eta/edo dokumentazio ematea, kanpainaren baldintzen jarraipen zuzena eta tiketaren banaketa egiaztatzeko.



Mutrikuko Udala



- Kanpainari atxikitako establezimenduen jabeek eta bertako langileak, ezta haien zuzeneko senideak ere (ezkonkideek, ezkontzaz kanpoko elkartean bizi diren pertsonak, seme-alabek, gurasoek edo anai-arrebek), ezin izango dira beren saltokiaren TIKET batekin sarituak izan.
- Mutrikuko turismo bulegoan banatuko dira tiketak eta saltoki bakoitzari zein zenbaki ematen zaizkion jasoko da aurreko puntua ziurtatu ahal izateko.

8.- AURREIKUSITAKO PLANA

2020ko gabonetako kanpaina honela egingo da:

- Datak:

Azaroak 21: Establezimenduek izena emateko azken eguna.

Azaroak 27: kanpainaren inguruko informazioa Prentsara bidaliko da. Ez da zuzeneko aurkezpenik egingo

Abenduaren 1etik urtarrilaren 6ra: kanpainaren iraupena

Urtarrilak 8: zozketa.

- Komunikazio euskarriak:

Parte hartzen duten saltokietan eta herriko zenbait gunetan jarriko diren kartelen bidez kanpainaren berri emango da. Mutrikuko etxebizitza guztietara buzoneatuko den flyer bat ere argitaratuko da.

9.- SARIAK ETA ZOZKETA

Zozketan parte hartzeko 16 urte beteta izateko baldintza bete behar da eta gabonetako kanpainak irauten duen egunetan herriko denda batean gutxienez 10 euroko erosketarekin tiketa lortu dela frogatu beharko da.

Zenbaki irabazlea duenak, erosketa-tiketarekin batera, saritutako tiketa aurkeztuko du Mutrikuko Turismo Bulegoan. Bertan, adinaren baldintza betetzen dela egiaztatuko da, NANaren bidez. Erosketarena tiketaren bidez, saltokiaren identifikazioa egingo da (aurretik jakingo da saltoki bakoitzak zein tiket dituen) eta erosketa-data e.a. konfirmatuko da.

Sariak:

- 3.105€ko balioa duen bonu sorta bat
- 1.080€ko balioa duen bonu sorta bat
- 540€ko balioa duten bi bonu sorta
- 270€ko balioa duten bost bonu sorta
- 135€ko balio duten hamar bonu



Mutrikuko Udala



Bonuen zozketa honela egingo da:

1) Zozketa urtarrilaren 8an egingo da streaming bidez.

2) Saritutako zenbakiak ateratzea:

- Sari bakoitzeko zenbaki irabazlea eta ordezkoa aterako da.
- Balio txikien duten bonoak zozketatuko dira lehenik, eta balio handiena duena azken tokian zozketatuko da.

3) Bonuen bakaneta:

- Zenbaki saridun bakoitza ateratzean, dagozkion bonu kopuruak ere zozketa bidez aukeratu dira.

4) Saritutako txartelak:

- Aurrez jakingo da saltoki bakoitzak zein zenbakiko boletoak dituen eta beraz, erosketa tiketak eta boletoa saldu den saltokiak bat egin beharko dute.
- Faltsifikazioaren susmoa badago, prozedura gelditu egingo da aurkeztutako tiketa benetakoa dela egiaztatu arte.

4) Saritutako txartelak aurkezteko epea: 15 egun, zozketa egiten den egunetik hasita. Epe hori igarota zenbaki saritua agertu ez bada, ordezko zenbakia izango da zozketaren irabazlea izatera pasatuko dena.

5) Pertsona berbera ezin izango da sari bat baino gehiagoren onuradun izan. Kasu hori gertatuz gero, pertsona hori balio ekonomiko handieneko bonoarekin sarituko dute.

6) Bonuak erabiltzeko epea 2021eko urtarrilaren 8tik 2021eko abenduaren 31ra izango da. Epe hori igarota, bonuak baliogabetuak geldituko dira.

8) Gabonetako kanpainan parte hartzean eta sariak jasotzean, saridunek baimena ematen dute beren argazkia, izena eta abizena www.mutriku.eus orrian argitaratzeko, bai eta informazio hori komunikabideetara bidaltzeko ere. Sarituek baimena ematen dute bere argazkia Interneten edota prentsan argitaratzeko eta argazki horiek ondorengo kanpainetarako erabiltzeko.

9) Saridunek ezin izango dute aldaketarik eskatu sarian, ezta sariaren gaineko erreklamaziorik egin ere Mutrikuko Udalari.

10) Sariak ezin izango dira dirutan duten balioarekin trukatu.

10.- PARTE HARTZEKO ARAUAK ONARTZEA



Mutrikuko Udala



Gabonetako kanpaina honetan parte hartzeak, bai merkatariak bai kontsumitzaileak, oinarri hauek erabat onartzea dakar, eta Udala ekitaldiarekiko eta haren erregulazioarekiko desadostasuna adierazten duen ondorengo erreklamazio edo akzio orotatik libre geratzen da.

Hala ere, behin betiko onarpena Mutrikuko Udalarentzat izango da, eta hark atzera bota ahal izango ditu partaidetza-arauak edo bere irizpidea betetzen ez dituzten eskabideak, baldin eta ekitaldi honen helburuarekin bat ez badatoz, edo oinarri hauen edukiarekin bat ez badatoz edo haren garapen normala oztopa badezakete.

Antolakundeak eskubidea izango du, ezinbesteko kasuetan edo gerora sortutako zirkunstantzia partikularren kasuan, ekitaldiaren garapena edo horren ondoriozko jarduerak atzeratzeko, laburtzeko, luzatzeko, eteteko, geroratzeko edo baliogabetzeko, eta kasu horietan ezin izango da inolako erantzukizunik eskatu.

CAMPAÑA DE NAVIDAD PARA IMPULSAR EL COMERCIO LOCAL 2020

BASES PARA LA PARTICIPACIÓN

1. JUSTIFICACIÓN Y OBJETO.

Dentro de las líneas de trabajo del departamento de desarrollo del Ayuntamiento de Mutriku, está establecida la necesidad de promocionar e impulsar el pequeño comercio local. Es por ello que el Ayuntamiento ha organizado la CAMPAÑA DE NAVIDAD 2020.

La campaña tendrá una duración de seis semanas durante las cuales, al realizar una compra mínima de 10€ en los comercios adheridos, los comerciantes repartirán unos vales para participar en la **LOTERIA DE MUTRIKU** en los establecimientos locales.

Con esta campaña, se pretende conseguir que los habitantes de Mutriku y localidades cercanas, utilicen la oferta comercial existente en la localidad, favoreciendo el conocimiento de la misma e impulsando la economía local a la vez que un modelo de movilidad sostenible.

Para llevar a cabo esta campaña, se han establecido unas bases que regulan la participación de los establecimientos y de la población.

2. ENTIDAD ORGANIZADORA Y COLABORACIONES.

La Entidad Organizadora de la “CAMPAÑA DE NAVIDAD 2020”, será el Ayuntamiento de Mutriku, a través de su departamento de Desarrollo Económico.

El ayuntamiento tendrá como referencia por su incidencia en el sector a la asociación de comercio BERTAN.

3. ESTABLECIMIENTOS PARTICIPANTES

En la presente edición de la CAMPAÑA DE NAVIDAD 2020, pueden **participar todos aquellos establecimientos comerciales, turísticos y de servicios de menos de 10 trabajadores** que desarrollen su actividad en un local habilitado para ello de cara al público, dentro de un horario establecido previamente y con acceso no restringido, que estén situados en el término municipal de Mutriku, que dispongan de escaparate o mostrador y estén en posesión de las correspondientes licencias.

4. IMAGEN DE LA CAMPAÑA

El comercio adherido a la campaña, mostrará en el escaparate el cartel de la campaña (en caso de no ser posible, en un lugar visible del mostrador) así como cualquier material relacionado con la misma.



Mutrikuko Udala



5. FECHAS CELEBRACIÓN

La CAMPAÑA DE NAVIDAD 2020 se desarrollará **desde el día 1 de diciembre de 2020 hasta el 6 de enero de 2021.**

El sorteo de los premios se celebrará el viernes, día 8 de enero de 2021.

6. PLAZO Y LUGAR DE INSCRIPCIÓN

Para participar en la CAMPAÑA DE NAVIDAD 2020 como establecimiento, se deberá cumplimentar y firmar el impreso de solicitud de inscripción.

El plazo para inscribirse en la presente edición es el 21 de noviembre de 2020 presentando la solicitud para la participación en la Oficina de Turismo de Mutriku, Plaza Txurruka, s/n, en horario de atención al público, de 10:00 a 14:00 horas.

Más información:

Contacto correo electrónico: koordinatzailea.mutriku@gmail.com

Contacto telefónico: 943 60 33 78

7. REQUISITOS: PARTICIPACIÓN ESTABLECIMIENTOS.

La participación en la CAMPAÑA DE NAVIDAD 2020 no conlleva ningún coste económico, pero si una serie de compromisos:

- El comercio adherido a la campaña, mostrará en el escaparate el cartel o la imagen de la campaña (en caso de no ser posible, en un lugar visible del mostrador) así como cualquier material relacionado con la misma., durante el periodo de celebración de la campaña.
- Mantener el contacto con el Ayuntamiento de Mutriku a través del correo electrónico y el número de whatsapp facilitados en esta inscripción. En el momento de presentar la hoja de inscripción el comercio acepta que el ayuntamiento utilice los datos que ha facilitado con el objetivo de llevar a cabo la comunicación sobre la campaña.
- Repartir los boletos para el sorteo entre los clientes que realicen un gasto mínimo de 10€. Será necesario guardar el ticket de compra para certificar el gasto y el comercio tendrá que grapar el o los boletos al ticket de compra.
- Devolver en la Oficina de Turismo los tickets que no se hayan repartido: Una vez finalizada la fecha de la campaña, y como máximo dos días antes de la fecha del sorteo.
- Informar debidamente a los consumidores sobre la campaña y conocer la lista de establecimientos participantes en ésta.



Mutrikuko Udala



- Facilitar al Departamento de Desarrollo del Ayuntamiento de Mutriku cualquier información y/o documentación que se solicite para verificar el correcto seguimiento de las condiciones de la campaña y el reparto de los tickets.

- Las personas propietarias y trabajadoras de los establecimientos, así como sus familiares directos (Los cónyuges, las personas que viven en unión extramatrimonial, los hijos e hijas, los padres y las madres o los hermanos y hermanas), no podrán ser premiados con un ticket de su propio comercio.

8. PLAN PREVISTO.

CAMPAÑA DE NAVIDAD 2020 se llevará de la siguiente forma:

- **Fechas:**

27 de noviembre: envío de una nota de prensa sobre la campaña. No se realizará presentación presencial.

Del 1 de diciembre al 6 de enero: duración de la campaña

8 de enero: sorteo.

- Soportes de comunicación: Se informará sobre la campaña a través de carteles que se pondrán en los comercios participantes y en algunos puntos de la localidad. Un flyer que se buzoneará a todas la viviendas de Mutriku.

- Sorteo: el sorteo se realizará por streaming el 8 de enero de 2020.

9. PREMIOS Y SORTEO

Para participar en el sorteo se deben cumplir los requisitos de tener cumplidos los 16 años y demostrar que ha obtenido el ticket con una compra mínima de 10€ en un comercio local dentro de las fechas de duración de la campaña de marketing.

Las personas agraciadas, presentarán el ticket premiado junto con el ticket de compra, en la Oficina de Turismo de Mutriku, donde se comprobará el cumplimiento del requisito de la edad, mediante el DNI, y el de la compra por la suma mínima, a través de tickets con identificación del comercio, fecha de compra etc.

Los premios:

- 1 conjunto de bonos con valor de 3.105€
- 1 conjunto de bonos con valor de 1.080€
- 2 conjuntos de bonos con valor de 540€ cada uno
- 5 conjuntos de bonos con valor de 270€ cada uno
- 10 bonos con valor de 135€ cada uno



Mutrikuko Udala



El sorteo de los premios se realizará de la siguiente forma:

- 1) El sorteo se realizará el 8 de enero y se emitirá por streaming.
- 2) Extracción de los números premiados:
 - Se extraerá un número ganador y un suplente por cada uno de los premios (18 números ganadores y 18 números suplentes).
 - Primeramente se sortearán los bonos de menor valor, y progresivamente hasta sortear el bono de más valor en último lugar.
- 3) Asignación de los bonos de compra:

Tras extraer los números premiados, también se sortearán los bonos correspondientes a cada premio.
- 4) Tickets premiados:
 - Los tickets premiados tendrán necesariamente que estar sellados por un comercio local o en su caso, por la Oficina de Turismo. Los tickets no sellados no podrán ser premiados.
 - Si hubiera sospecha de falsificación, el procedimiento se paralizará hasta verificar la autenticidad del ticket presentado.
- 5) Plazo de presentación de los tickets premiados: 15 días a partir de la fecha del sorteo. Transcurrido este plazo si no apareciera el número premiado, será el número suplente el que pasará a ser el ganador del sorteo.
- 6) Una misma persona no podrá ser beneficiaria de dos premios. Si se produjera el caso, esta persona será premiada con el bono de mayor valor.
- 7) Los bonos podrán utilizarse entre el 8 de enero y el 31 de diciembre de 2021. Pasado ese plazo, los bonos quedarán anulados.
- 8) Al participar en la campaña de navidad y recoger los premios, las personas premiadas dan su consentimiento para publicar su fotografía, su nombre y apellido en la página www.mutriku.eus así como a enviar dicha información a los medios de comunicación. El o la premiada da su consentimiento para publicar su fotografía en internet y/o en prensa y utilizar esas fotografías para campañas posteriores.
- 9) Las personas premiadas no podrán solicitar cambios en el premio, ni realizar reclamaciones posteriores sobre el producto al Ayuntamiento de Mutriku.



Mutrikuko Udala



- 10) Los premios no podrán ser canjeados por su equivalente en dinero.

10. ACEPTACIÓN DE LAS NORMAS DE PARTICIPACIÓN

La participación en esta CAMPAÑA DE NAVIDAD, tanto por los establecimientos participantes como por los consumidores, implica la total aceptación de las presentes bases, quedando el Ayuntamiento liberado de cualquier reclamación o acción posterior que signifique disconformidad con el evento y su regulación.

No obstante, la aceptación definitiva queda reservada al Ayuntamiento de Mutriku, quien podrá rechazar aquellas solicitudes que no cumplan con las normas de participación o a su criterio no se ajusten a la finalidad de este evento, ni al contenido de las presentes bases o puedan interferir en su normal desarrollo.

La organización se reserva el derecho, en caso de fuerza mayor o de circunstancias particulares sobrevenidas, de retrasar, acortar, prolongar, interrumpir, aplazar o anular el desarrollo del evento, o sus actividades derivadas, sin que en tales casos pueda ser exigida responsabilidad alguna.